


Astekaria

LARRAÑAGA

elgoi

MUSIKESKOLA 10 urte irakasten



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana II. 74 10 II - ELGOIBAR

SAN MIGEL IVZOKO JIII1K

23 OSTIRAL11

8etan: JAIEN HASERA kanpai jotze eta txaflligekin.

- 10,15etan: IDI DEMAK, bizkaitarren eta gipuzkoarren artean.

- **Ondoren:** ERROMERIA Azkonabieta eta jokinekin eta bolo jokuak.

LARVNBATA

- **Eguerdiko letan:** "La Union"ek antolatutako EHIZA txapelketako SARI BANAKETA.

10,30etan: HARITZ Dantzari Taldea eta trikitilariak.

- **GAU PASA Izetatik aurrera:** Haritza taldearekin.

Gaueko 12,30etan: BOLO TXAPELKETA.

29 OSTEGBVA SIN MIGEL EGBVA

Goizeko 11,30etan: MEZA Nagusia Ziarda eta Meabe bertsolariekin.

Ondoren: BERTSOLARIAK eta auzoko TRIKITILARIAK.

- **Gaueko 10etan:** Erromeria EGAN taldearekin.

25 IGANDELL

- **Goizeko lletan:** MEZA NAGUSIA.

- **Ondoren:** Mugartegi eta Azpillaga BERTSOLARIAK, Maixa, Itziar eta Garhiñe TRIKITILARIEKIN.

- **11,45etan:** San Migelera TXIRRINDULARI IGOERA.

12,30etan: PILOTA partiduak.

- **Arratsaldeko 5etan:** HERRI KIROLAK, aizkolariak eta harrijasotzaileak,

Gaueko 10etan: ERROMERIA Maixa, Itziar eta Garbiñekin.

1 LARVNBATA

4etan: HAURRENTZAKO JOLASAK.

- **Ondoren:** TXOKOLATE JANA.

- **Gaueko 10etan:** BERTSO JAIALDIA: Lizaso, Ziarda, Peña, Meabe, Egaña eta Sorozabal.

- **Ondoren:** Rekalde anaiak.

Gaueko 1etan: TXEKORRAREN ZOZKETA.

2 IGANDELL

11,30etan: MEZA.

- **Ondoren:** PILOTA partiduak.

- **2,30etan:** Anaiarteko BAZKARIA.

- **Iluntzeko 8etan:** TXOKOLATE JANA

Egun osoan LAJA ETA LANDAKANDA trikitilariak.



elgoiSAREN
Nafarroa enparantza 2
74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNITZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Aniel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRATIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Itziar Agirregomezkorta, Ano Aizpiri, Myrrom Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Udzi Etxalae, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenorro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galclos, Ina Garagarza, Gotzon Gorate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guilló, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larran'aga, Imanol Larrariaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazogct, Aitor Mcrya, Iñaci Oclriazola, Ixa Sanchez, Jose Inozio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zaboleta, Yulen Zaboleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrahaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oriati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS¹.038/92

ISSN: 1 1 33-021X

eigoiBARREnek ez du bere gain hartzen chiizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Ekologiazaleak

ontradictio in terminis" baldin bada ere: "Zein eder izango litzateke mundua gizonik gabe". Gure planeta gaixo hau oihan eta basoz betea legoke, txoriak eta animaliak nonahi eta ugari, ibaiak eta errekek garden, haizea osasungarri, zerusapaia bere edertasunean zulo hilgarririk gabe.

Guk geure egunotan errazegi gaitzetsi ohi dugu iragana. Kolonizazioak eta inkisizioa higuigarri iruditzen zaizkigu, emakumea horrenbeste gizalditan zapaldua izan dela salatzen dugu eta oraindik ere burua erahat jaso ez duelako arranguratzen gara.

Besteak madarikatzen ditugu. Inoren hutsak nabarmenarazi, geureak izkutatu. Ikusten dugu besteen zurtzuileko bartzia eta ez dugu ikusten geure bekokiko zorria.

Gure planeta eri dago, gaixorik dago. Nork ezarri du horrela? Guk geuk. Guk zikindu ditugu errekek, erre oihan eta basoak, haizea kutsatu, itsasoa likuskeriaz bete.

Azken 50 urte honetan lurbira osoan hondamendi izugarri suma liteke. Lehenago milioi eta milioi urtean garbi, osasuntsu izan den planeta guk hondatu, eriarazi, ahuldu eta hiltzorian ipini dugu.

Diruaren ohoretan diogu naturari begirunerik ekarri. Dirua, dirua eta dirua. Dirua egiteko erreka pozoina bota

behar dela? Bota bada! Itsasoko arrainekin dirua irabaz liteke. Nola edo hala harrapatu, bide debekatuz eta itsaszola betiko hondatzen bada ere.

Amazonasko baso zoragarrietan urrea dela? Bota zuhaitzak, zikindu ibaiak. Dena diruaren ohoretan.

Gure planeta hiltzorian dago.

Zer esango dute gure atzetik datozenek? Geurekoi, egoista hutsak izan ginela. "Ni ongi bizi, ondorengoak usteltzen badira ere"? Horixe da batzuen leloa. Beren zilborrei bakarrik begira.

Ez dira, zorionez denak horrelakoak.

Badira gure planetaz arduratzen direnak. Askok. Eta horien artean ekologiazaleak batez ere.


Ekologiazaleak zinez axolatzen dira, nor beraren ahalmenaren arabera, natura bere berean jarrai dadin, dirugosetuen gehigikeriei jazartzen, hondamena eta zikinkeria salatu eta galeratzen.

Euskal Herrian horrelako talde asko daude, zorionez. Natura geure ama dela zeharo sinetsirik daude, animaliak geure adiskideak direla, basoak, zerua, itsasoa, eguratsa datozen gizakiei ere bere garbian eta jatortasunean eskuratu behar zaiela.

Ez da erraz ekologiazaleei, merezi duten bezainbat txalo jotzea eta esker ematea.

Gotzon Garate

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



BARRENen 75. zenbakian, "Gogoratzuz" atalean, "baserritarrek arto eta gari zelemen bat eman zioten..." agertu zen. Zenbat da zelemen bat?

Elhuyar Hiztegi Enziklopedikoak dioenez, Zelemen bat, "ale-neurri zaharra da, ia bost litroko edukiera duena",



Inazio Bereziartua Musika Eskolaren kexa heldu zaigu: Esan digutenez OHOk hiru ikastetxeek ordutegi ezberdinak dituzte eguerdian eskolatik irteteko eta arratsaldean sartzeko. Horren ondorioz, eguerdiko orduak ezin dituzte aprobetxatu klaseak emateko,



Irakurle batek deitu digu Herriko Antzokiko zinerako prezioak benetan zuzenak iruditzen zaizkiola esateko. Nagusiek 350 pta, haurrek 200 eta ikusleen egunean 200 pta.

Euskal presoekin, gose greban!

Agur t'erdi:

Pasa den larunbatetik, eta euskal presoekiko elkartasuna adierazteko asmoz, gose greban gauden 7 elgoibartarrek, gure erreflexio zein gogoetak adierazi nahi dizkizuegu.

Jadanik, 16 urte bete behar dituzte zenbait presok Estatu espainiarreko kartzeletan; hauen artean Jaio, Alberdi eta Iriondo elgoibartarrek 10 urte beteko dituzte datorren azaroan.

Euskal Herria, 1994, non gelditu dira askatasun ametsak? Euskal Herria 1994, 560 preso, milaka eirefuxiatu, ehundaka deportatu, langabezia, sare industrialak deseginda, euskara bigarren mailako hizkuntza, droga, intsumisoak kartzelan, Nafarroa ez da Euskadi, Iparraldeaz zer esan...

Hau al da nahi dugun oraina, hau al da, 36ko edo gaurko gudari eroriek amesten zuten Euskadi Askatua?

Nork eraikiko du Euskal Herri maitea? Dirua Jainkotzat duten hainbat "politikilok", edota bere burua beste gauzen gainetik ipintzen duten sasi abertzale horiek.

Gose greban gaudelarik, Guardia Civil-aren ekintza terrorista gauzatzen da Bidasoako Beran, hori bai terrorea, hori bai indiskriminatua, hura bai aitona-amon zein umeen kontra planifikatutako ekintza zuzena. Eta gure Partido Vasco-Españolista PNV, Guardia Civil-aren buruekin esku emanda Madrileko Gortean, bakearen izenean!

Nork esan zuen abertzale izatea

erraza zenik? Nork pentsatzen du Euskadi Askatzea sufritu gabe, Espainiako zein Frantziako Estatuaren errepresio bortitza jasan gabe?

Utz ditzagun behingoz amets eroak, eta ekin Ianari, ekin elkartasunari, ekin Euskal Herria askatzeari.

Kartzelan zein erbestean dauden anai-arrebak, dena emateko prest egon dira herri hau askatzearen, eta herri honek beraiekin bat egiten du, beste biderik ez zaigulako gelditzen. Horregatik, gaur, 36an Morkaikon zein Kalamuan entzuten ziren irrintzi euskaldunak, Herrera de Ia Manchan zein Parisko espetxeetan entzuten direlako, dena eman behar zaio maite den askatasunari! Eutsi Euskal Herria.

Amnistia ta Autodeterrninazioa. Jo ta ke irabazi arte!

Gose greban gauden 7 elgoibartar

Sallobenteko zaborrei buruz

ku trreko asteko kexari erantzunez zera gigitu nahi du Gazte Asanbladak:

Erreka garbitu ostean ahal izan genuen zabor guztia herrira jeitsi genuela, baina hain zen handia zabor piloa guztia jeisteko aukerarik ez genuela izan. Orduan, Udaletxera hots egin genuen zakarren berri emanez, kokapena eta guzti zehaztuz.

Hilabete pasa eta gero eta Udaletxearen zabarkeria ikusirik, gure bitarteko eskasez baliatuz, furgoneta bat eskatu eta zaborrak jaso genituen.

Aurreko asteko gizonari galderatxo bat egin nahi diogu: zenbat da Sallobentetik bueltatxo bat egiten ez duzula?

Gazte Asanblada

HARRIGORRIKOI KOERROTABERRITARRAK





fl ste honetako erretratua Margarita Estartak iagatakoa da. Lerungo futbol zelaian aterako erretratu hau begibistakoa da zaharra dela, 1925. urtekoa. Margaritak esan duenez Romualdo Andonegiri egin zioten ornenaldikoa da erretratua.

Zeintzuk diren? Tente, ezkerretik hasita: Pepe

Etxaniz (t), Roke Fernandez de Jauregi (t), Romualdo Andonegi (t), Alberto Epelde (t), Ciriaeo Garate (t), Santiago Barrutia (t), Jose Ezenarro, Vicente Uria, Jesus Lizarralde, Dionisio Estarta (t), ezezaguna eta Tomas Olasolo (t).

Eserita: Justo Etxeberria (t), Sebastian Epelde (t), Francisco Muguruza (t), Sabino Andonegi (t) eta Juanito Garate.




11 10 1111-1

**ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA**

94-95 kurtsoaren AURKEZPENA

Irailaren 30ean goizeko 10etan izango da.



- Euskaraz affabetatzeko eta EGA prestatzeko ikastaroak.
- Klaseak astean bi egunetan

æek Plaza txikia 3,
Tel. 74 13 32
Euskaltegia

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERRISTAIN
San Roke, 30 behe. a 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

10 urte musikaglitzu



■ Lau orkestra ezberdin osatu dira Musikeskolan. Kontzertuak urtero mordoxka bat izaten dira.

Inazio Bereziartua Musikeskolak 10 urte beteko ditu neguan. 10 urte dantza klasiko eta tradizionala, solfeoa eta korala, instrumentuak,... irakasten. Musika, haurren heziketan funtsezko elementua da eta kultur aberastasunaren ongarri. Kultur bideak urratzeko prest daude aurtengo ikasturtea hasiko duten 500 haur inguru. Zaletasunik ez da falta itxura denez. Eta batek daki, Rostropovich, Calas edo Placidorik atera litekeen bertatik!

it abaldu berri dizkio ateak 94/95 ikasturteari Inazio Bereziartua Musikeskolak. Sei urtetik hasita, korala, solfeoa, instrumentua edota dantza egiten ikasiko dute haur, gazte eta helduek. Txikienek, sei urtetik zortzi urtera bitartean, tailerretan parte hartzen dute. Dantza eta musikarekin lehen kontaktua izaten dute tailerretan. Astean hiru egunetan dantza eta musika lantzen dute, erritmoa, zaratak, eskulanak... Zazpi urterekin solfeoko preparatorioa egiten dute, eta zortzi urterekin instrumentua ikasten hasten dira. Behin instrumentuarekin hasten direnean, astean bi ordu solfeoa, ordubete korala eta instrumentua hiru ordu laurden egiten dute. Musika karrera modura egin nahi izanez gero, erreforzatu egiten dira musika ikaske-

.....
Instrumentu gogokoenak:
Pianoa, kitarra, akordeoia eta flauta trabesera dira.
Gutxien aukeratzen direnak, berriz, Tronpa, tronboia, txeloa, oboea, txistua eta azken aldian tronpeta eta klarineta.
9.....

tak, eta Kon-tserbatorio Nagusi batean sartu ahal izateko prestatzen da, bertan karrera burutzeko.

Helduentzako klaseak

Musika ikasketak gaztetatik edo umetatik burutzen dira normalean. Badira, ordea, musika ikasketak egin nahi dituzten helduak, baina haurrekin batera klasera joatea nahi ez dutenak. Hauen zat Inazio Bereziartua musikeskolak ordutegi bereziko klaseak jarriko ditu aurtengo lehen aldiz. Talde horietan izena emateko aukera dago oraindik.

LOGSEren aldaketa

1990. urtean Musika Kontserbatorioa zentru ofizial bilakatu zen eta urtebete beranduago maila ertaina lortu zuen. Gaur egun bailarako maila ertaineko zentru bakarra da eta herrikoak eze-

zik, Mutrikutik, Debatik, Mendarotik, Eibartik eta Plaentxitik ere etortzen dira. LOGSE dela eta, kontserbatorioa desagertu egin da eta musikeskola bihurtu. Dena den, plan zaharrarekin hasi ziren ikasleek, plan horrekin jarraitzeko eskubidea dute.

Musika ikasteko modua erabat aldatu da azken urteotan. Instrumentu bat ikasteko ez dira lehen bezala solfeo bost urteak eta koraleko bi urteak egin behar. Hiru adarretan banatuta dago musikeskolaren eskaintza: korala, instrumentua eta dantza. Biolina jotzen ikasi nahi duen haur batek, pixkanaka-pixkanaka batera ko ditu solfeoa eta biolina. Mari Jose Zubiaurre musikeskolako koordinatzaileak azaldu digunez, instrumentu taldeak, laukoteak, boskoteak, kamara orkestak eta horrelakoak sortzea da Administrazioaren asmoa.

• • • • e e e • •
"Oraingo gure egoera nahiko kaxkarra da. Lokalak eduki baditugu, baina hiru edifiziotan sakabanatuta".

411 • 0 0 0 111 • 41 •



Instrumentuarekin batera, solfeoa eta korala ikasten dute.

Auditorium-a noizko?

Aspalditik dago Udaletxectn musikeskolarenizako auditorium bat eraikitzeko asmoa. Leku-Ederreko etxeen alboan, zutabeak eginak daude dagoeneko. Eraikuntza oso osorik izango litzateke musikeskolarentzat, gelak eta kontzertuetarako auditorium-a barne. Proiektua aspaldikoa bada ere, eraikitze lanak geldirik daude diru kontuak direla eta. Musikeskolcrko arduradunen hitzetan "oraingo gure egoera nahiko kaxkarra da. Lokalak eduki baditugu, baina hiru edifiziotan sakabanatuta". Klaseak Plaza Txikian, Azoka Plazan eta Kultur Etxeko sotoan ematen dituzte. Instrumentuekin atzera eta aurrera ibili beharrak, eta herriko beste kolektibo eta elkarte batzuekin lakctlak konpartitu beharrak, koordinazio arazo izugarriak sortzen ditu. Izakera propioa eta giro epelagoa sortuko lukeen egoitzaren faltan daude. Garai hobegoen zain egon beharko.

"Arazoa -dio Mari Josek- haur gehienek sail bateko instrumentu berdina aukeratzten dutela da. Korda edo metal orkestatxoa ezin daiteke eratu, biolin eta biola mordo bat egonda ere, txeloa jotzen duenik ez dagoelako". Pianoa, kitarra, flauta, soina... instrumentu klasikoek jarraitzen dute arrakasta gehien izaten. Beste instrumentu batzuetan, ordea, apenas apuntatzen den jenderik. Txelolan, adibidez, jenderik gabe geratu dira, eta aurren seguruenez, jenderik apuntatzen ez bada behintzat, ez da txelo klaserik emango. Instrumentu klasikoetan, berriz, ikasle kopurua mugaratu egingo da.

Pianoa, guztien artean errege

Handikeriak bultzatuta apuntatu izan dute ama ugari bere seme-alaba piano klaseetara. Pianoa jotzea dotorea da, eta etxean pianoa edukitzeak statusa ematen zuen. Gaur egun, gauzak aldatu egin dira Mari Joseren ustetan. "Ez dago lehenago zegoen handikeria hura. Haurrak nahi duelako ikasten du instrumentu bat, ez

amak behartuta. Hala ere, instrumentu garestia da pianoa. Gainontzekoen prezioa ere ez da makala izaten, baina beste instrumentu batzuren kasuan, merkeagoak diren "estudiokoak" deitzen direnak daude. Pianoaren kasuan ez dago horrelakorik, bigarren eskukoak ez bada behintzat. Piano berri batek 300.000 pta kosta ditzake gutxienez. Prezio garestia dela eta, haur askok musikeskolak dituen pianoetan ikasten dute.

Orkestak sortuz

Inazio Bereziartua musikeskolaren baitan hiru talde osatu dira dagoeneko, eta aurren baliteke laugarrena eratzea. Orkesta bat dute, abesbatza, soinu orkesta ere bai, eta aurren banda bat sortzeko asmoa dute, Udal Bandan ezinezkoa denez, txikienek ere jotzeko aukera izan dezaten. Inguruko musikeskolen artean elkartrukeak egin izan dituzte eta esperientzia oso aberasgarria izan omen da. Soinu taldeak Torrelavegako lehiaketa batean hartu zuen parte, eta lehen postua lortu.

Kultur ekintza nahikoa al dago Eigolarren?

Maiz entzuten dut herriko kaleetan zehar gure herrian kultur ekintzetan aukera gutxi agertzen dela.

Aurrenik, kulturaz hitze gin aurretik, bere esanahia aztertu behar-ko litzateke. Hiztegiak dioenez, kultura, "herri edo zibilizazio baten burulanen emaitzen multzoa" da.

Esanahi hau konplexuegia gerta daitekeenez, ikuspegi herrikoiago batez adierazi nahi nuke kulturaren arlo hau.

Kultura delakoaren barnean tarte oso zabala dute kontzertuek, hitzaldiak, erakusketek, e.a... Joan den urteko datuen arabera, ikastaroak (10), hitzaldiak (4), kontzertuak edo dantza saioak (30), antzerkiak (8) eta erakusketak (15) izan ziren Elgoibarren.

Gerta daiteke datu hauek irakurri ondoren herritar multzo bati harridura sortzea 67 aukera izan direlako. Eta, posible da beste hainbati ere gutxiegi iruditzea. Nire ustez herritargoaren gehiengoak aukera hauei erantzuten ez dienez, "pasotismo" sinboloa argi eta garbi erakusten da.

Badira herriko jendeak parte hartzen duen ekitaldiak. Hauetan erantzuna baikorra izaten da. Esan beharra dago, baita ere, saio hauetara hurbiltzen den jendea, senide, lagun edo inguruko pertsonen osatua egoten dela batez ere.

Bestalde, kanpoko beste edonor etortzen denean jendeak ez du erantzuten. Adibidez, Junkera, Euskal Herrian den soinu-jolerik trebeena, Kiroldegira etorri zenean "Ortzi" folk talde nafarrarekin batera, hogeitaz lagun izan ziren bertan. "In fraganti" antzerki talde ezaguna Herriko Antzokira etorri zenean, beste horrenbeste gertatu zen.

Sarritan herritarren erreakzioa erakunde ofizialak salatzean oinarritzen da. Norbera errudun kontsideratu gabe.

Guzti hau adierazi ondoren, mezu labur bat luzatu nahi nieke herritarrei. Ia antolatzen diren ekintzetan guztion parte hartzearekin erakunde ofizialak ekintza gehiago eta hobeto aukeratutakoak antolatzerantz behartzen ditugun.



JOSE INAZIO SARASUA

E

FADEK

SOLETIPIU

D
E

,4

..92 154eGait

MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

Fotero

OKINDEGIA
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
74 07 35

INTERIORES

- SUKALDE ETA BAINUAK
- PROIEKTU ETA ERREFORMAK
- DEKORAZIOA
- ERREGALUAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Erosario 15 Behea.

imanole
GOZOTEGIA

San Frantzisko 44, 74 41 37

ELGOIBAR

JOSE ANGEL ZABALA

URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34


Kultur ekintza nahikoa al dago herrian?



MARIKRUZ URRESTI

62 urte, etxekoandrea

Gauzak itxen diaz, danetarako dao eta jendia ere nik usteot juten dala. Ni esposizuetara juten naiz batzuetan, gizonak nahi badau.



IGOLI SOTA

21 urte, ikaslea

Arazua da informazio falta daola eta interes faltia ere bai. Eskaintza badao, edozein astetan gainera, baina neu naiz lehenengua juten ez naitzena.



ILURDES SANZ

68 urte, etxekoandrea


Badaude gauzak, dantzak, kontzertuak... Baina gehiago egin daitezke. Neri asko gustatzen zaizkit baina nagikeriagatik ez naiz joaten.



M. PILAR BERISTAIN

34 urte, Haur eskolako irakaslea

Antzerki mailan ez dau gehixegi baina Kultur Etxia dauanetik erakusketa aldetik dextente gauza antolatzen dia. Ni ahal dotenian juten naiz.



ITSASO ZUBIAURRE

18 urte, ikaslea

Ekintzak badaude baina jendiak ez daka interesik. Ni alperra naiz eta askotan ez naiz juten, gero jundakuan gustora egon arren.



IÑAKI PEREZ

40 urte, irakaslea

Zezer itxen da baina beti in leike gehixao. Gauza berrirak itxeko, lehenengo pentsau in bihar da zer falta dan, zela in leiken, zeinek ingo daban..



JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko UN1FORM leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

1. Ez dauka mantenu beharrik

Haizea eta urarentzat isolatua

Kolore efektu ikusgarriak

Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzearako mundiala.

BULEGOA:
Ubitatrrte, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

■ Kilometroak 94ra mendiz mendi

Datorren urriaren 2an izango den Kilometroak 94ko ospakizunaren inguruan, Morkaiko Mendizale Elkartek eta Elgoibarko Izarrak Deskarga gainera Legazpiara bitarteko travesia antolatu dute. Ibilbidea hiru ordukoa izango da. Joan nahi duten bazkideek 600 pta. ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 900. Izena emateko Morkaikoren (74 02 97) edota Elgoibarko [zarraren egoitzara jo (74 16 26). Sigmako zubitik izango da irteera goizeko 9etan.

■ Errosario kaleko afaria

Errosario kaleko jaien barruan urriaren 7an, gaueko 9etan izango den afarirako izena emateko epea zabalik dago. Errosario kalean lokalik lortu ez dutenez, Gure-Bide elkartearen izango da afaria. Menua honako hau da: Marmitakoa, eskalopea guarnizioarekin, flana izozkiarekin, ardoa, ura, eta kafea. Prezioa 1.800 pta. Afarian zehar Duo Plaentxik eta Dakinta txiste kontalariak jardungo dute. Izen-emateko Beti-Argi argidenda, Petunia edo Imanol Garcia Vallejorekin harremanetan jarri.

■ Egin egunerako autobusa igandean

Egin egunera joateko autobusa antolatu du Kimetz Elkartek. Hil honen 25ean aterako da Plaza Handitik goizeko 10etan. Izena emateko ohizko tokietara zuzendu.

■ Egonaldiak ezinduentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak ezintasun fisiko serioak dituzten pertsonentzako neguko egonaldiak antolatu ditu. Guardamar del Segura (Alicante) herrian, Campomar Hotelean igaroko dituzte egunak, tandak urriaren 20tik abenduaren 13ra bitartean antolatuko dituztelarik. Izena emateko 900-43 43 43 zenbakira deitu, edota Elgoibarko Udaletxeko Gizarte Zerbitzuan informazioa eskatuz.

Zazpi elgoibartar gose greban

Euskal preso politikoak irailaren 3tik burutzen ari diren gose grebaren aldeko elkartasun modura, zazpi elgoibartarrek baraua egiten dihardute joan den larunbatetik, hilak 17. Elgoibartarrek astebete emango dute gose greban, larunbat honetan, hilak 23, eguerdiko 12etan amaituko dutelarik. Udalaren baimena jaso eta gero, azoka plazako azken pisuan eman dute aste osoa, ezertxo ere jan gabe, ura edan soi-

lik, egunean 3 bat litro. Gose grebarekin batera enkarteladak eta manifestazioak burutu dira Elgoibarren eta Euskal Herriko hainbat lekutan ere bai. Larunbatean, gose greba amaitzean, manifestazioa hasiko da San Frantzisko iturrian. Hilaren 26an HBko parlamentari eta zinegotziek gose greba hasiko dute eta urriaren lean, manifestazio nazionala burutuko da Bilbon.



Zinea eta bideo emanaldiak beldurrezko jardunaldietan

Kokoe Komiki Elkartek antolatutako erakusketa bisitatze-ko azken eguna hil honen 30a izango da; beraz, aukerarik izan ez duena garaiz dago oraindik. Erakusketarekin batera, beldurrari buruzko zikloari omenaldi gisa, filmeak, kontzertuak eta bideo emanaldiak izango dira. Gaur, hilak 23, "Zonbi gaua" izeneko saioa izango da Herriko Antzokian gaueko 22,15etatik aurrera. Bi filme emango dira, "La noche de los muertos vivientes" eta "Brain-dead". Tartean 6Nemen9 musika taldeak joko du. Igandean, hilak 25, eguerdiko 12etan, Kokoeko

marrazkilarien eta Santiago Sequeiros komikilariaren eskutik, zuzeneko komiki marrazketa burutuko da Kultur Etxean. Azteazkean, hilak 28, gaueko 22,15 "El baile de los vampiros" eta "El cazador de vampiros" filmeak emango dira bideo formatoan, eta ostegunean, "La mosca" proiektatuko da. Bi egun hauetan, gaueko 22,15etan hasiko da emankizuna Kultur Etxeko proiektzio gelan. Zikloarekin bukatuko duen pelikula "La semilla del diablo" izena dauka. Azken hau Herriko Antzokian eskainiko da hilaren 30ean, 22,15etan.

200 ikasilek ikasiko du liMHn aurtenge lasturtean



Berrehun ikasletik gora arituko dira 94/95 ikasturtean Erraminta Makinaren Institutuak eskaintzen dituen ikastaro ezberdinetan. Hautatik 101 ikaslek aurremodulua deritzon ikasketak burutuko dituzte, hiru taldetan banatuta. Beste 91 ikaslek hiru modulu ezberdinen artetik bat egiteko aukera izango dute. Ikastarorik arrakastatsuenak Makinen Mantenua eta Sistema Automatikoak buruzkoa da, 43 ikaslerekin. 20 neska-mutilek Delineazio Industrialak ikasiko dute eta beste hainbestek Fabrikazio Mekanikoari buruzko modulua bukatuko dute aurtengatik.

Hezkuntza araututik at, graduosteko lau ikastaro burutu ahal izango dira IMHn. Hautetan 60 ikaslerentzat lekua egongo da. Ikastaro bakoitzean 15 pertsona onartu-

ko dira gehienez, horregatik, aztertuta egongo da aurkezten diren guttien artean.

Azkenik, Aldundiko Ekonomia sailak diruz lagundutako Birziklaia eta Hezkuntza Programaren barruan 25 ikastaro antolatuko dira diseinua, produkzioa, mantenua eta automatikaren atalean hemendik eta Gabonak bitartean. Hautetan 12 izango da gehienezko kopurua.

Ikasle itallarrak IMHn


Italiako Mddena Democenter ikastetxeko 17 ikasle (argazkian) IMHn daude heziketa ikastaro bat burutzen. Bertan ordenagailuz egindako fabrikazioari buruzko klaseak jasoko dituzte, eta Fatronik, Tekniker eta Danobat lantegien nondik norakoen berri jasotzeko aukera izan dute, bertara bisita eginez.

111 Gripearean aurkako txertaketa kanpaina

Osakidetza gripearean aurkako txertaketa kanpaina hasi du. Bakuna hartzea gomendatzen zaie 65 urtetik gorakoei eta gaisotasun kronikoak dituzten guztiei, besteak beste bihotzeko gaitzak, gibelego gaisotasunak... Txertoa hartzeko 65 urtetik gorakoek Seguritate Sozialeko kartila, Osasun Txartel Indibiduala edota NANA aurkeztu beharko dute eta gainontzekoak medikuarengana joan beharko dira bolantea egitera. Txertoa edo bakuna hartzeko Osasun Zentrutik pasa daiteke, astelehenetik ostiralera goizeko 9etatik 2etara bitartean. Azken eguna urriaren 29a izango da. Altzolarrei hil honen 28an emango zaie txertoa Zaharren Biltokian goizeko 10etatik arratsaldeko 3etara bitartean.

■ Irlandako egoerari buruz mintzatuko da Karmelo Landa

Karmelo Landa, Herri Batasunako Eusko Legebiltzarrerako Bizkaiko zerrenda burua, Elgoibarren izango da gaur ostirala, hilak 23. Arratsaldeko 7,30etatik aurrera Kultur Etxeko hitzaldi gelan Irlandako bake prozesuari buruz mintzatuko da. Karmelo Landa Irlandako bake prozesua jarraitzen izan da HBko ordezkari osatu duten Aoiz eta Manterolarekin batera. Bertan egon diren denboran, kartzelan dauden IRAko presoekin eta Sin Fein-eko kideekin hitz egin dute. Elgoibarko HBk herritar guztiei dei egiten die hitzaldira ager daitezen.



DEBA KALEA 12
goki el refofink, si. 201:ELGOIBAR
ERRR
FATXADAK ETA TEILAT AK
11] :14.,

Jesus Mari Canales:

"Gazteek gero eta hobeto ezagutzen dute perretxikuen mundua"

Jesus Mari Canales mutil koskorra zenetik da perretxikuzatea. Ahal duen guztietan makila esku artean hartu eta mendian gora eta behera ibiltzen da lurrak sortutako fruitu preziatuen bila. Jesus Mari eta herriko beste perretxikuzale batzuen lanari esker, aurten 20 urte beteko ditu

"Karakate" elkarteak antolatzen duen perretxiku lehiaketak. Meritua ez da txikia. Aranzadi taldekoen laguntza estimagarria izaten dute, bereziki perretxikuen aurkezpenari begiratzen diotelarik. Datorren domekan, Elgoibar mikologiaren hiriburua izango da berriz ere.

- Zelan bururatu zitzazuen perretxiku lehiaketa ipintzea martxan?

- Haseratik gure helburua ume eta gazteengan perretxiku zaletasuna piztea izan da. Horretarako hiru ikastetxeetako irakasleen laguntza funtsezkoa da. Lehiaketek bultzatuta bai umeak eta baita nagusiak ere mendira joaten dira perretxiku bila. Espezie bakoitzaren ezaugarriak aztertu eta jateko onak eta txarrak direnak bereizten dituzte. Azken batean, lehiaketen bitartez jende askok perretxikuen mundua ezagutu du. Horixe da garrantzitsua.

- Gaurko perretxikuzaleek lehenagokoek baino gehiago al dakite?

- Bai, inolako dudarik gabe. Orain dela 20 urte jateko onak ziren bost edo sei perretxiku bakarrik ezagutzen ziren Euskal Herrian. Gaur egun, 15 klase ezberdin hartzen dira gutxienez. Perretxikuzaleek, batez ere gazteek, asko ikasi dute azkenengo urteotan.

Zer jakin behar du perretxikutara doanak?

Gutxienez bi gauza izan behar dira kontuan. Batetik, topatutako perretxikua ona ala txarra den ez badaki ez du seku-



"Honddo beltza eta honddo zuria dira hemengo perretxikuzaleei gehien gustatzen zaizkienak"

la hartu edo jan behar. Perretxikuzaleak ondo jakin behar du zertan dabilen. Bestetik, hartu behar ez dituen perretxikuak ezin ditu lurrian apurtuta laga. Hori eginez gero, perretxikuaren ezaugarriren bat desagertu egin daiteke, eta atzetik datorrenak ezingo du ondo bereiztu. Adibidez, "Amanita phalloides" espezieari hankan dituen eraztuna eta arraultza kentzen badizkiogu Gibelurdinaren antza haundia hartuko du. Gibelurdina primerako

perretxikua da, "Amanita Phalloides", ostera, pertsona hiltzeko kapaza.

- Intoxikazio asko izaten al da perretxiku txarrak jateagatik?

Asko ez, baina urtero gertatzen da kasuren bat edo beste. Euskal Herrian intoxikazio gehienak "Entoloma Lividum" perretxikuak sortzen ditu. "Pandilla" izeneko espezie jangarriaren oso antzerakoa da; la berdina. Bata eta bestea oso ondo ezagutu behar dira ez nahasteko.

- Zenbat perretxiku

klase daude munduan?

- Oso zaila da hori jakitea. Milaka eta milaka daude. "Aranzadi" elkarteak 3.000 espezie ezberdin ditu zenbatuta Euskal Herrian.

- Eta guztien artean, zeintzuk dira estimatuenak?

- "Onddo beltza" eta "Onddo zuria" dira, dudarik gabe, hemengo perretxikuzaleei gehien gustatzen zaizkienak. Galdetu edozeini, ez daukate kompetentziarik.

Zeintzuk dira perretxikutarako tokirik eta sasoirik onenak?

- Pagadiak toki aproposak dira; baita hariztiak eta antzerako baso garbiak ere. Sasoi onena oraintxe da, iraila eta urria bitartean, beti ere euria eta eguzkia tartekatzen badira.

Esagizu sekretu bat... Zein da perretxikutan ibiltzeko Elgoibarko tokirik onena?

- Hori jakitea nahi nuke neuk ere! Ez dakit, ezin dizut ziur esan. San Migel, San Pedro, Azkarate...

Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiet Aranzadikoei eta bereziki Bernabe Mujikari, beti eman izan digyten ezinbesteko laguntzagatik.

AITOR ZABALETA

Za arrak B RRI

3. ADINAR1 ZUZENDUTAKO 6. GEHIGARRIA



/4141)11 7AIS

Bakailao Txapelketa

Zaharren Biltokiak BakailaoTxapelketa antolatu du. Asmoa iraila amaieran egitea da, baina oraindik inork ez duenez izenik eman beharbada aurreragoko utziko da. Binaka hartu ahal izango da parte eta hona hemen zeintzu izango diren oinarriak: materiale guztia Biltokiak jarriko du. Bakailaoa saltsa berdean egin behar da, lau zati bakailao, lau pertsonentzat. Beharrezko osagaiak bakarrik erabili daitezke eta ez beste arrain batzuk, hala nola, kokotxak, ganbak... Irabazlearen kazuelatxo Biltokiko Zuzendaritzarentzat izango da eta gainontzeko guztia bertara urreratzen diren guztien artean banatuko da. Irabazleak, bigarren fase batean hartuko du parte, bailara mailan antolatu den txapelketan hain zuzen ere. Ea ba jendea animatzen den.

Arantzazura joan ziren hifaren 17an, Elgoibarko San Lazaro egoitzakoak. Hogeita hamar lagun bildu ziren guztira, hamabost ezindu eta beste hamabost pertsona horiei laguntzeko. Orain bi urte hasi ziren urtean behin irteera bat eginez, Loiolara behin eta Arratera iaz. Gurutze Gorriak euren zerbitzura jartzen duen

mikro autobus bereziari esker dute posible honako txango hau egitea. Bazkal ostean irten, meza entzun eta, arratsalde partera, demaseko afari-merienda izan zuten, epel epel eginda etxera bueltatzeko. Hori izaten da plana eta denek gustura baino gusturago pasatzen dute, begira bestela argazkian agertzen direnen aurpegiatar.

ZAHARREN



EGUNEKO MENUA

Pintxoak, ogitartekoak, salda, enkarguzko afariak.



KEMEN



Belardenc

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

TRINIDAD BARRUTIA

"Entakundak beti dalci gizon bat zela konkistau"



Trinidad Barrutiak 68 urte ditu. Orain 43, Arjentinara joan zen, "nobixua eibartarra nakan ta hara jun bihar zala esan zian, Ni ez nauan prest haura berriro bueltan etorri arte zain egoteko, horregatik, ezkondu ta bixok jun ginan". Bahia Blanca izeneko hirian bizi da gaur egun. Bertan du familia, seme eta alaba bana, duela 15 urte alargun geratu zen eta. Hala ere, Trinik Elgoibar du bere bihotzeko herria, "nik beti esan dot hemen oso ondo bizi nintzala". Bizia, arina eta alaia, bere gaztaroko urteak pozik gogoratu ditu gure artean.

- Juergazalea zinen?

Bai. Gitxikin dibertitzen ginan gu. Bilobak galdeztzen dia oin askotan ia gaztetan zer egiten genduan ta nik zera esaten diot, "ezer ez. Dantzara juten ginan. Arrakastia bazakazun mutilen batek dantzara etaratzen zizun eta bestela neskak neskekin itxen gendun".

- Eta zuk, arrakastarik izaten al zenuen?

- Bai, alaixa nitzan eta, bizixa. Kafia hartzen egoten ginan ta pagatzerakuan, "ez Trini, pagauta dao". Uhh! Que exito!

- Nola ligatzen zenuten?

- Lehenengo pausua beti mutilak, neskak bazterrian egon eta inportantzia ematen jakin bihar gendun. Nere bilobari esaten dioten bezela, "de la seduccin haciendo un deporte". Koketeatzia gustatzen jatan. Asko ibiltzen nitzan ahizpa zakin, Amparokin. Haren

nobixuak esaten zian Barajaseko aeroportua ematen gendula, hona etortzen zian kanpotar guztiak gurekin geratzen zialako. Azkar erantzun nion nik, "zeozegatik izango da, ez?".

- Mutil askok sufritzuko zaban zurekin.

- Ez. Ondo jakin bihar da beti frenua ipintzen. Lagunak bakarrik dianian lagunak dia eta hasieratik lagatzen jakue argi. Bilobari esaten diot interesatzen ez bajako, ez lagatzeko sekula mutil bati deklaritzen, lagun bat galtzeko arriskua daualako.

- Preparatzea gustatzen al zitzaizun?

Ez, bueno ezpainak gorri gorrixak pintatzia gustatzen jatan baina bestelan ezer espezialikan ez. Akordatzen naiz zela behin, Iñakí Konde Morcaikoko presidentia zala, nere ahizpa sozia zan baina bera alergikia zanez ni

ixotzen nitzan mendira ta nik botatzen naban haren tarjetia. Behin, Bilboko talde bateko presidentia etorri zan, Diego, oso mutil politxa. Harek esan zian, "begi zatarrak dakazuz, aho zatarra dakazu...". Ta esan nion nik, "orduaz zergatik zaio nerekin?". Ta berak, "bistosia zeralako". Bueno, zeozer bada, pentsau naban nik.

- Eigoibartar guztiak



- Txoratu baina eibartar batekin ezkondu.

- Bai, ta esango dizut zeatetik. Nik neure denboran nahi nitxuanak bastante neure eskura eukitzen nitxuan, baina haxe zan, eibartarra, eukitzen ez nabana. Horregatik, haxe nahi naban nik ta lortu naban, ta ez naiz damutzen, oin be berdina eingo neuke. Maitxe daban gizona maitxemintzen ez dakixan emakumia, ez da benetako emakumia.

- Hain sinplia al da, ba?

- Ez, sekretua norberak ziurtasuna eukitzian dao eta bakoitzak bere barruko guztiak ezagutzian eta hoixek ondo erabiltzen jakitzian.

- Arjentinarren tonoa badakazu. Esaera berezirik?

- Esan ezin leikezenak. Beitxu hemen oso izen jatorra da "Conchita" ezta? Ba han ezin leike esan, emakumian hanka bitxartia da eta. Eta "coger" erezta eh!

- Atzera egitekotan?

- bana berdin ingo neuke bi gauza ezik, Arjentinara jun eta senarran aitxakin ta amakin bizi izatia.

Arjentinan Conchita ezin leike esan, emakumien hanka bitxartia da eta.

Gininasiak ez dauka adinik

Ez da lehenengo aldia Zaharren Biltokiak jubilatuentzako gimnasia antolatzen duena. Aurreko urteetan izan duen arrakasta ikusirik, aurten ere ekintza bera aurrera eramatea pentsatu zuten, inolako dudarik gabe. Ariketa fisikoak dakartzan abantaila guztiak kontuan izanik, bada Elgoibarren, astero-astero gimnasia egitera biltzen den talderik. Aurten, gainera, gimnasia egiteko era berri bati ekin diote, "gimnasia estatika" deitzen dena.



Jose Antonio Zuazubizkarrek ematen du Gimnasia estatikoa.

7 pertsonak eman dute ize-na mementuz eta urtea aurrera joan ahala, kopurua haunditzea espero da. Lagun talde hau bi zatitan banatu da. Batzuek iazko dinamikarekin jarraituko dute. Joxean Hidalgo izango dute monitorea eta honek agindutakoaren arabera, musikaren erritmoa jarraituz, as- tean hiru orduz gorputza mugit- zeari ekingo diote. Talde hau Mekanikako gimnasioan elkartu-

ko da.

Bigarren taldeak, ordea, ez du mugimenduan oinarritutako ariketarik egingo. Jose Antonio Zuazubizkar izango da hauen gidaria. Honen hitzetan, "guk mugimendu eza landuko dugu, mus- kuloak estiratuz, arnas ariketak eginez, erlaxatuz...". Zuazubizka- rren esanetan pertsona orean gaitz guztiak bizkar hezurrean dute jatorria, "bizkar hezurrean zentratuz gainontzeko muskulu

eta hezurak ere lantzen ditugu, gorputz osoaren onerako". Gor- putza forzatu gabeko ariketak dira, "gorputz bakoitzak bere denbora dauka eta ez zaio be- hartu behar mementu horretan ezinezkoa zaiona egitera".

Bata zein bestea, aurten ere Elgoibarko jubilatuek badute au- kerarik etxetik irten eta lagunar- tean gutxinezko mugimendu batzuk egiteko. Eta ez dira da- mutuko.

Pprffr-lrri Pr.rirrr(f7RK- rj,q rri Er(J5

1.- Arropa

Erosoa, estutzen ez duena eta, ahal bada, kotoizkoa. Fajak, korse eta antzekoak ez dira aproposak mugimenduak zailtzen dituzte eta. Oinetakoak ere erosoak behar dute izan, oina behar beste estutuz. Zolak (suela) ez du irrist egin behar. Arropa nahikoa izatea komeni da, bero dagoenean kendu ahal izateko eta hotza denean jartzeko.

2.- RIU5d1C:

Eraztunak, belarritakoak eta antzeko bitxiak ez dira sekula eraman behar, min egin dezakete eta.

3.. Jatorduak

Ariketak egin baino bizpahiru ordu lehenago jatea komeni da. Ura ere bazkal orduetik kanpo edan behar da, gutxi- ka-gutxika eta egarrikerik ez daukagunean.

areilleica

Ariketa ritmikoak erritmo geldo batean.

Ez gara nekatu behar.

Atzera mugitzeko ariketak.

Ez da gainontzeko lagunekin lehiatu behar.

Burua ez da gerriaren azpitik jeitsi behar.

Onuragarriena iraupena da, etengabe egitea.

5.- Lokala

Leku nahikoa behar da mugimenduak inolako oztopo- rik gabe egiteko. Pertsona bakoitzeko aulki bat jarri eta beste inor ikutu gabe mugitzeko tokia egon behar da.

6.- euevezlzUsun

Edozein ariketa egin aurretik medikuarekin hitzegitea komeni da.

Mina, mareoa, arnasa hartzeko zailtasunak, buruko minak igjerri ezkerro, ariketak egiteari utzi.

Noizean behin baina etenik gabe egitea da benetako onura ekarriko diguna.

Animo eta mugitu, hobeto bizi nahi baduzue!

Dirulaguntzak subiltzaileentzat

Aseguru Etxeen Nazio Mailako Erakundeak Madrilen dauka zentrua. Bertatik, herri bakoitzean dauden aseguru etxeen arabera eta hauetan egiten diren aseguru kopurua kontuan hartuz, zenbateko bat banatzen da urtero herri bakoitzera. Orain dela bi urte egin zen kontzertu baten arabera, Elgoibarrera 2.700.000 pta banatzen dira suhiltzaileentzako laguntza bezala. Baina Elgoibarko Udaletxearen iritziz, aipatu kopurua ez da nahikoa gaur egun jende gehiagok egiten baititu aseguruak. Horregatik, beharrezko gestioak egingo dira esandako kopurua haunditu asmoz.

Iberdrola

Iberdrolak 3.535.551 pta ordainduko ditu apirila, maiatza eta ekaina bitartean bere zerbitzua eskaintzeko Elgoibarren erabili dituen lurra, azpilurra eta airea dela eta.

Diru proposamenak


- Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari 250.000 pta. Antolatu duen Begirale Ikastaroari dagokion diruaguntzaren bigarren zatia.
- Haritz Euskal Dantzari taldeari, 389.832 pta uztailen egin zuen argazki erakusketa dela eta.
- 1.133.475 pta Ongarriri, uztailko, abuztuko eta iraileko aire libreko zine emanaldiak direla eta.

"Eusko-Trenbideak"ek autobusen zerbitzua ge du



Elgoibar-Eibar-Ermua ibilbidea lehen PESA autobusek egiten bazuten, hilabete batzuetatik hona Eusko Trenbideak enpresa da arduraduna. Enpresa honek bere esku hartu zuenetik aipatu ibilbidea, zenbait aldaketa egin zituen, horien artean autobusen ordutegia tnurritzitu. Hone-la, lehen orduerdiro zegoen autobusa Elgoibartik Eibarrera joateko. Eusko Trenbideak-ek, ordea, zerbitzua murriztu zuen

autobusak ordubetero jarriz. Guzti honen aurrean, eta egunero ibilbide hau egin behar duten herritarrek batez ere, dexente kexa aurkeztu zituzten Udaletxean, zerbitzua nahikoa ez zela esanez. Hau ikusita, Eusko Trenbideak, herritarrei haserako eskaintza bera jartzea erabaki du. Honela, joan den astelehenean hasita, egunero, orduerdiro dago autobusa.



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

TXURI BELTZ

rffabeirmal

San Franzisko 38



XVII. eko Santa Klarako komentu berria

nti Komentu berri hau ez dagaur egun monjak bizi direnekohori. Hau XVII. mendean hasi ziren eraikitzen eta 1979ra arte iraun zuen.

1609ko ekainaren 16an, Cantabriako Frantziskotarren nagusia zen Pedro Arbuluk, komentu berria eraikitzeko idatzizko baimena eman zien Santa Klara komentuko Abadesari eta monjei.

Idatzizko baimen hau baino lehen, monjek bazuten ahozko baimena eta hainbat urrats emanak zituzten. Obren errematearen baldintzen eskriturak eginak zituzten, esate baterako. Eskritura hau, 1609ko ekaina aurretik egin zuten eskribauaren aurrean.

Lehenengo baldintza ekonomikoa izan zen. Obra egin behar zuen maisu-harginari 300 dukat eman zitzaizkion eskura haseran eta beste 200 dukat Gabonetan. Gainera, monjek urte bakoitzeko 200 dukat gehiago eman behar zizkioten.

- Enkantea "estadoka" (estadoa garai hartako luzera neurri bat zen, gizaki arrunt baten garaierako neurria) egiteko erabakia hartu zuten, "estadoa"ri prezio bat jarritz. Ondoren, "Estadoaren" ohizko neurria zazpi oinekoa izango zela zehaztu zen (3 oin = vara 1, vara = 0,837m) eta lodiera 3 oinekoa.

E Harri landuari dagokionean ere enkantea vara-ka ipini zuten, hau da, harginek zenbatean egingo

zuketena vara bat harlandu.

Obra hartu zuen ofizialok fidantza jarri behar zuen (bai eta fiadoreak ere, honela, berak huts egin balu, fiadoreek izango zuketena erantzunkizuna).

Aipatu ofizialari noizean behin bisitatxo bat egitea zehaztu zen, obrak nola zihoazen ikusteko. Zerbaitek hust egiten bazuen, gaizki eraikitakoa bota araziko zioten, berriro ere behar bezala eraiki arte.


Erremateko eskrituran zehazturiko epea beteko ez balu, bere lan saritik 200 dukat kenduko zitzaizkion.

Obra guztia harlagaintzakoa izan behar zen, ateak, feihoak, eskantzuak, arkuak eta beste gauza batzuk ezik.

ei Enkantea kandelaren bidez erabakitzen zen, hau da, proposamenak, kanclela pizturik zegoen bitartean egin behar ziren. Beraz, maisuen artean istiluren bat

~~baldego, kandc~~
berri ere piztu beharko litzateke.

PELLO ARRIETA,



Francisco Salaberria

(1914-1981)



Francisco Salaberria, "Paco", 1914. urteko ekainaren 4ean jaio zen.

Errosario kalean bizi izan zen gizon hau "La voz de España" egunkariko korrespontsala zen Elgoibarren.

- Bera izan zen urte mordo batean herriko bizitza sozialaren kronista. "Ecos de sociedad", gertakizunak, herritarren urtehetetze eta heriotzak,... gertakari oro jasotzen zuen Paco Salaberriak "La voz De España"n zuen zutabearen.
- |||| Herriko korrespontsala ezezik, postaria izan zen eta Eskola Publikoetan ere, maisu lanetan jardun zuen ordezkapen batean. Gaur ez bezala, korrespontsalek karnet akreditatiboa izaten zuten. Pacok ere bazeukan berea.
- Hil zen arte jardun zuen kronista gisa.
- 1981. urteko ekainaren 23an hil zen.

**ZXIDUI
ITU RGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. TeL 74 05 30



Mandiola S.L. Egurrak

Donningo Arrizabalaga

**SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA**

Juan Mugerza 3. s. 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



M | T | Z | A | K

Ehiza Txapelketa

Hil honen 24an, larunbata, La Union Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatutako txapelketa izango da San Migel auzoan. Herritar zein bazkideentzako izango den txapelketa honetan fisaieiei egin beharko zaie tiro. Parte hartzalle bakoitzak epaile bana eraman beharko du. Zozketa goizeko 8etan egingo da La Union elkartean eta txapelketa 9etan hasiko da, alde zurretik mugatutako lur sailean. Guztira 80 fisaie askatuko dira. Arratsaldean txapelketan parte hartu dutenek soilik ehizatu ahal izango dituzte soberan geratutako hegaztiak.

Kirol jaialdia Olaizagan

Larunbatean, hilak 24, Ibai gimnasioak antolatuta kirol jaialdia burutuko da Olaizaga kiroldegian. Bi ordutan zehar judoa, gitnasia erritmikoa, aerobie-a, takewondoa, Jiu-Jitsu-a eta bestelako kirolak ikusteko aukera izango da. Jaialdia arratsaldez izango da, 5etatik aurrera. Sarrera doan.

Atletismo kluba martxan

Ego-Tokiko arduradunek atletismo taldea lagatzeko erabakia hartu zutenean, zortzi bat laguneko taldea eratu zen herrian atletismoari bultzada emateko. Irakasle, guraso, teknikari eta kirolariz osatutako talde honek egin ditu lehendabiziko bilerak eta joan berri den aste honetan ikastetxeetako haurrekin atletismo jaialdi bat burutu dute. Klub berri honetan parte hartu nahi dutenek jakin ateak irekita dituztela.



Diego Garcia:

"Marka estatala hobetu nahi det Tokyon"

Ezer baino lehen, zorionak. - Eskerrik asko.

1 Sinistu ezinda? Sinistia zada da, ze, metan Fiz, ni eta Juzdado sartzia kristona izan da.

1 Berandu xamar hasi zinen atletismoan, ez? - Bai, 21 urtekin. Edade horrekin seniorretan hasi nintzan, Gipuzkoa mailan. Orduan ez nuen pentsatzen gaurko mailara helduko nintzanik. Maratoira pasatu eta gero, orduan bai.

1 Entrenamenduak? Egunero 30 kilometro pasa erritmo fuertian. Eta lau mila, bost milako serieak...

1 Lortu al duzu heldutasuna kirolean? - Ontxe bi urte Olinpiadetan 9.ena geratu nintzan, Mundiale-tan 14.ena, Munduko Kopan 8.ena... Azken urtietan maila haundian ibili naiz. Behin ere ez det pentsatu medalletan. Baina aurtengo bigarren postu hori bezelakorik ez det lortu.

1 Helburua zein da? - Atlantako jokuetara ondo heltzia. 32 urte daukat eta heste lau geratzen zaizkidala uste det. Oin Berlinera noa Adidas-ekin kontratua berritzeko asmoz. Ondoren berriz Alemaniara serieak

korritzera eta gero, urrian jai. Ia juerga piskat egiten uzten diguten!

1 Adin onenean zaude, ez? - Bai, maratoiantzako edade oso ona da. Munduko ranking-eko lenenguak 32-35



urtekuak dira.

1 Boston-ekoa ondo irten izan balitz? Beti pentsatzen det karrera hortara kapazidadiakin jun nintzala. Teiden entrenatzen hilabete osoa eman eta oso forman ailegatu nintzan Bostonera. Karrerako 25 kilometroetan marka haundie egiten ari nintzan baina antolakuntzako fallo haundi bategatik... dana pikutara. Kolpe oso haundie izan zan. Marka haundia egiteko aukera neukan.

1 Berehala errekuperatu zinen. - Gogorra izan zan. Handik lau hilabetera Europeua naukan. Moralki jota nenguan, baina forma aldetik oso ondo. Gogorrek entzun behar izan ditut, baina kirola horrela da.

1 Hurrengoan, zer? Febreruan Tokyoko Mundialan marka pertsonala hobetu nahi det: 2 ordu eta 9 minutu egin, rekor estatala berritu.

1 Mugerza krosean egongo zara? - Beti etortzen naiz. Aurten


Mundiala daukat fetxa hoietan baina ahal bada etorriko naiz.

1 Noiz irabaziko diozu Fiz-i? - European nire nahia hirurak podiumean egotia zan. Baina hurrenguan ahal badet irabazten saiatuko naiz.

• Adina: 32
• Famaren zama?
Igartzen da. Azken aldian batez ere.
• Bizitzeko ieku bat?
Loiola edo Azpeitia
• Hobbyak? Ehiza, mendia, paseatu eta lagunekin

BOUTIQUE DEL PAN
Enpanada Baserriko ogia
L; Ecnarro, 1 74 33y

ARMUETA
Baserriko haragietan berezia
San Bartdome, 16.Tr 74 06 40

Pinturas Elgoibar
Quipa 
Fermin
• Pinturok
• Enpapelatuak
• Goteie
• Igeltsuzko dekorazioak
• Lurrak
• Pinturajaponiarra, etab.
Urasandi z/g (Anayak etxea)
Tei: 74 39 91

"Kirola eliskaraz" programa aurkeztu da

Deba Garaiko eta Beheko Udal Kirol eta Euskara teknikarien arteko elkarlanetik sortutako "Kirola Euskaraz" programa aurkeztu zuten ofizialki asteartean. Egitasmoan parte hartu duten Udaleko teknikariez gain, ez ohizko gonbidatuak izan ziren: Diego Garcia Europako txapeidun ordea maratoian, K-2ko gailurra lortu berri duen lfiurrategi mendizalea eta ETBko Asier Aranguren kirol kazetaria. Ekitaldian, euskara eta kirolaren alde egindakoagatik, oroigarri bana eman zitzaizen blurrategi eta Garciari.



■ Diego Garcia Europako txapeidun ordea eta A. lfiurrategi izan ziren aurkezpenean.

K irola Euskaraz". Hitzek argi adierazten dute egitasmoaren helburua. Bi arlotan oinarritzen da programa: batetik, euskarazko testuen argitalpenak bultzatzeko laguntzak ematean eta bestetik, ikastaroak antolatzean. Bi urte daramatza martxan egitasmoak eta milioi t'erdiko aurrekontua dauka. Iaz, futbolari buruzko liburu bat itzultzeko izan zen laguntza eta aurten, entrenamendu sistemei buruzko liburu berri bat idazteko. Debako Ina Oiarzabalek idatzi du liburua eta laster argitaratuko da.

Zortzi ikastaro

Programa honen beste arloa, ikastaroei dagokiena da. Hemendik eta Gabonak arte zortzi ikastaro ezberdin burutzeko aukera izango

da. Hauetako bi, atletismoa eta boleibolari buruzkoak, monitore titulu ofiziala ateratzeko izango dira. Ikastetxeetako irakasle eta hezkuntz hezitzaileei eta entrenatzaile lanetan dihardutenei zuzenduta daude. nontzekoak, futbola, orientazioa mendian, patinak, rugbya, kirol bendejateak eta aurrekirol jokuei buruzkoak izango dira. Elgoibarren atletismoa eta patin ikastaroak burutuko dira. Futbola eta rugbya Bergaran, Arrasaten boleibola, Oñatin orientazioa mendian, Eibarren kirol bendejatei buruzkoa izango da eta Deban aurrekirol jokoei buruzkoa.

Atletismo ikastaroa

Burutuko den lehendabizikoa atletismo ikastaroa izango da. Hil honen 24tik urriaren 30era arte luza-

tuko da; 80 orduko irapena izango du. Mintxetan eta Kultur Etxean emango dira klaseak. Helburua dena euskaraz ematea bada ere, zenbait gai gaztelaniaz irakatsiko dira.

Ikastaroetan izena emateko Udal Kirol Zerbitzura zuzendu edota 74 44 15 zenbakira deitu. Programan parte hartzen duten herrietako jendeaz gain, Mallabia, Mutriku eta Mendarokoek ere izango dute parte hartzeko aukerarik. Programaren baitan dauden herrietako jendeari beharpena egingo zaio prezioan.

"Kirola Euskaraz" programa, esperientzia guztiz aberasgarria izan da Udal Kirol Teknikariaren ustetan. "Harreman sendoa sortu da Deba Beheko eta Garaiko Udalen artean, eta beste edozein elkarlanerako bidea ere egingo dago".

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 24

12,00: C. D. Elgoibar Zumaiako (Jubenilak)

13,45: Urki A- Urki B (Jubenilak)

17,00: C. D. Elgoibar- Segura (2. errejionala)

Igandea 25

10,00: S. D. Eibar Mitxelín (Ohorezko Kadeteak)

12,00: C. D. Elgoibar Almen (Kadeteak)

17,00: C. D. Elgoibar - Lizardi (Neskak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Igandea 25

"Elgoibar Hiriko III. Eskubaloi Txapelketa"

11,00-12,00-13,00: Elgoibar - Bergara Jauja (Kadeteak neskek)



ESKUBALOIA

"Elgoibar Hiriko III. Eskubaloi Txapelketa"

Elgoibar 11 Jauja 10 (Seniorrak inutilak)

Akondia 12 - Jauja 10

Akondia 11 - Elgoibar 10

FUTBOLA

Haundi 1 Urola I

Lagun Onak 1- Elgoibar 2 (2. errejionala)

Sporting 1 - Elgoibar 0 (Jubenilak)

Urretxu 1 Elgoibar 2 (Neskak)



KENSINGTONCON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 74 02 36



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BATZIDEA

P.E.T.cen'te ES 4061

9195 IKASTURTEA irailaren 15 eta urriaren 3tik aurrera talde berriak Ingeles, frantses eta alemanierako matrikulazio epea zabalik:

MAILAK:

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua).
Sarrerako azterketaren arabera.

TALDEAK:

Mintzamen praktikak
Kanpo komertzioa
- Itzulpena (bi Inizkuntzetara)
Literatura
- Azterketet ofizialak (PET, London University eta eskola ofiziala)
Oinarrizko mailak haurrentzat.

ORDUTEGIA:

Goizez-arratsaldez-gauetz
(egunero edo astean egun batzuk). Intentsiboak

ADINA:

Adin guztiak **5 urtetik gorakoentzako klaseak**



BATEERGO INSTIVUTUA *eta* LANBIDE MIKETAKO INSTITUTUA

10040 *elaari,tee 144e,ta.* *irailaren 30ean*

11,30etan: 1. eta 2. BUP eta REM
Batxilergo Institutuan

12etan: UBI, BAG, BTI, LOGSE
D eredukoak
Lanbide Eskolan

12,30etan: UBI, BAG, BTI, LOGSE
A ereduak
eta FP AUTOMOZIOA
II moduloa
III moduloa
Lanbide Eskolan

OHAR

Joan den ikasturtean UBI bukatu duten ikasleak institutuko bulegotik pasa daitezke Batxiiergo Titulua jasotzera.

Jaiak San Migel auzoan

Datorren astean, hilaren 29an, ospatuko dute San Migel auzoan patroiairen eguna. Jaiak, ordea, lehenago hasiko dira, astebukera honetan hain zuzen, eta urriko lehen astebukera arte luzatuko dira.

Ohi den bezala, jai egitarau zabala antolatu dute San Migeldarrek, bi milioi pasako aurrekontuko jaiak. Gaur, hilak 23, eman zaie hasera jaiei. Gaueko 22,15etan Erraizta eta Belarreta gizpukoarrak Arientza eta Artadialde bizkaitarren aurka arituko dira idi deman. Lehenarentzat 300.000 ptako saria izango da eta 250.000 bigarrenarentzat. Ondoren Azkonabieta eta Jokinek alaitutako erromeria hasiko da. Hilaren 24an, larunbata, juergazaleek gau pasa egiteko aukera izango dute Haritza taldearen eskutik. Gau partean bolo txapelketa eta Haritz Dantzari Taldearen eta auzoko trikitilarien saioa izango dira.

Igandean, hilak 25, mezaren ostean bertsolariak, San Migelera igoera, pilota partiduak eta arratsaldean herri kirolak egongo dira. San



||| Hilaren 23an hasi eta urriaren 2ra arte luzatuko dira San Migel auzoko jaiak.

Migel egunean, hilaren 29an, Meza Nagusian parte hartuko dute Meabe eta Ziarda bertsolariak. Gau partean, berriz, Egan taldeak berotuko du giroa.

Urriaren leian, beste ekintza mordo baten artean, gaueko 10etan hasiko den bertso jaialdia aparteko atentzioa erakarriko du bertsozaleen artean. Kantari arituko dira Lizaso, Ziarda, Peñagarikano, Meabe, Egaña eta Sorozabal. Segidan erromeria eta txekorra zozketatuko dira.

Urriaren 2a, igandea, jaiei eskainitako azken eguna izango da. Goizean auzoko bikoteen arteko "XI. Pilota Txapelketa"ri dagozkion partiduak eta "Elgoibar Hiriko III. Gaztetxoan San Migel Sariko" azken norgehiagokak jokatuko dira. Eguerdian anaiarteko bazkaria izango da auzotarrentzat eta iluntze aldera, txokolate beroa banatuko da indarrak errekuperatzeko. Egun osoan zehar Laja eta Landakanda trikitilariak arituko dira.

Kilometroak 94

- Urriaren 2an, igandea, Legazpin
- Prezioa: 900 pta. (Bazkideak 600 pta)
- Izena onateko: ELGOIBAKKO IZARRA K.E.

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Eikartea



IAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Aelaleetal

Ermuako Udalak **ARGAZKI LEHIAKETA** bat antolatu du. gaia Hirugarren adina izango da eta lanak aurkezteko azken eguna urriaren 21a. Euskal herriko edonork har dezake parte. Lehiaketara lau lan aurkez daitezke gehienez, koloretan edo txuri-beltzean eta honako zenbaki honetara bidali behar dira: Ennuaka Zaharren Biltokia, Cardenal Orbe kalea, 4.

Euskadi Gazteak martxan jarri du **MAKETA LEHIAKETA**ren garren edizioa. Maketak bidaltzeko epea datorren urriaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago nahi duenak 42 36 30 eta 46 92 55 telefono zenbakietara dei dezake.

Bekak

Nazioarteko elkartruckerako programetan ikasle gizpukoarrak parte har dezaten, Kutxa Fundazioaren Gazteen Bulegoak **1994-95 ikasturteari buruzko E.K.E.KO ERASMUS PROGRAMAN PARTE HARTZEKO LAGUNTIA-DEIALDIA** zabaldu du. Oinarrizko laguntza 50.000 patkoa izango da eta beste 10.000 petako laguntza osagarri bat atzerrian pasatako hilabete bakoitzagatik. "Credigazte ikasketak" kreditua, ebriz, 400.000 ptarartekaa izango da. Eskaera egiteko azken eguna urriaren 30a da. Informazio gehiago 42 63 19 telefonoan.

Inteerak

Iraialeko igande guztietan erromeria izaten da **ERNIO** mendian aspaldiko ohitura jarraituz. Domeka hau, hilaren azkenengoa idenez, berezia izango da. Pena ntereziko du beratarhurbiltzeak eta aspaldiko partez erromeri giroan ibiltzeak.

444 ~ /

praf haunditzen...

O

tik institutuak saltoa dedia dela esaten da. Ikasgaiak zailagotu egiten dira, ardurak ere handiagotu... Baina, beharbada, ondoren datorrena izendatu beharko litzateke benetako "jauzi" bezala. Unibertsitatea aukeratzeak edo, zutxienez, ikasketak Elgoibartik kanpo jarraitzeak aldatu dakartza edozein gazteren bizitzan. Gazteen eta beraien gurasoen bizitzan ere hai, nola ez. Donostiara batzuk, Bilbora beste asko, Gasteizera zenbaitzu eta Iruhara ere joaten da hainbat gazte urtero, urrian hasi eta ekaina bitartean. Ikasturteak dirauen bitartean, ikasleek zenbait aukera dituzte bizi-modu berriari beera.

Etxetik kanpo bizitzeak suposatzen duen abentura ezagutu nahi dutenek hiru posibilitate dituzte: alde batetik pisua, beste lagun bat-

zugin alokatzen den pisua. Hemen, togikoki, norberak egin behar izaten ditu erosketak, bazkaria, garbiketak... Eta, horrezaz gain, behar denean ikasteko ardura ere izan behar da, "desmadratzeko" arriskua handia izaten baita, tentazio asko dago eta. Nagiakoak direnek, berriz, erresidentziak dituzte. Mistoa batzuk eta neskenentz edo mutilentz bakarrik beste batzuk, hauek jana mahaian jartzen dizute baina arau batzuk jarraitu behar izaten dira, horien artean ordutegi konkretu bat. Badaude pentsioak ere. Apupilo tipora bizi nahi dutenek logela bat hartzen dute etxebizitza batean, jabeak garbitzen dizkizu arropak eta, hala hautaz denean, baita bazkaria jartzen ere. Azkenik, herrian bertan, etxean geratzen direnentz, guztien artean merkeena den aukera dago; autobusak, alegia, eguneroko joan-etorria.



GASTIVAIAK PIERISOWAI Kei EITYA

PENTSIOAK HILEKO		AUTOBUSAK Donostiara Bilbora	
Logela	30.000 pta	Aixola	9.500 pta 8.500 pta
Pentsio erdia	45.000/50.000 pta	PESA (3 hile)	40.000 pta 31.000 pta
Pentsio osoa	55.000/60.000 pta	INFORMAZIO GEHIAGO:	
• PISUAK	20.000-25.000 pta	- Novia Salcedo: tr 94- 4239993	
• ERRESIDENTZIAK		- Kutxa Fundazioa: v412043	
Merkeenak	32.000 pla inguru	- Gasteizko Errektorerdotza: v945-265722	
Garestienak	80.000 pta inguru	- Aixola: 72 103457	
		- Pesa: v102131	



GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta baxu bat jotzeko. Lehen bait lehen.

74 22 70 Igor
Gauetz 9etatik 10etara

GARAJE BAT saltzen da pista beltzean. Marraduna. Prezio onean.

74 08 79

GARAJE BAT ALOKATZEN DA Urasandin.

74 31 07

GARAJE BAT alokatzen da ganbara eta guzti Juan Mugerza kalean (pista beltza).

74 21 86
Gauetz 7 1/2etatik 10etara

GARAJEA ALOKATZEN DA ganbara eta guzti. Juan Mugerza kalea. (Pista beltza)

74 07 10 Gaueko
7,30etatik 10etara.

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.

74 21 64

GARAJE BAT alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.

74 08 05

Salerosketak

S1AMES BAT eskaintzen da doan.

74 39 19
Gauetz deitu

4/4ko BIOLIN BAT saltzen da.

74 17 84
9etatik aurrera

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.

74 18 51

MENDIKO plastikozko Koflach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)

12 04 44
Deitu eguerdian 1,30-2,00

MOUNTAIN-BIKE bat eta URETAKO PAIPO bat salgai, biak prezio merkean.

74 26 91

Bainu gelarako MANPARA, ARMAIRUA eta ISPILUA saltzen ditut. Prezio oso onean.

74 19 81 Ana Mari

12 belozidateko MOUNTAIN-BIKE TXIKI BAT saltzen da. Erdiberria. Prezioa: 100.000 pta.

74 28 32

Lana

MEKANOGRAFIAKO KI ASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Mendaron.

75 61 48 Idoia
75 51 35 Nuria

ENPRESARIALASen DIPLOMATUA NAIZ eta klase partikularrak ematen ditut.

74 39 89 Mari Carmen

hezkuntza zientzietan lizenziatuak (Pedagogia) OHO eta REMeko klase PARTIKULARRAK emango lituzke Irailetik aurrera. Talde murriztuak

74 39 24 Maite

Magisteritza eta ingenieritza teknikoan lizentziatua naiz eta PARTIKULARRAK ematen ditut euskaraz eta erdaraz. OHO eta BUP.

74 28 53 Alazne

Edozein TESTU MOTA ORDENAGAILUZ PASATZEN da eta "Curriculum"ak egiten dira.

10 66 66

FRANTSES KLASEAK ematen ditut.

74 04 59
2- 3etara / 8etatik aurrera

BBB eta UBiko FISIKA ETA MATEMATIKAKO KLASEAK ematen ditut.

Euskaraz eta erdaraz.
74 23 01 Jokin

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO lagun baten beharrean gaude.

65 38 76 Olatz

LOGELA BAT DAUKAT ALOKATZEKO DONOSTIAN (Gros).

Egongela dauka. Ikasleak, irakasleak edo langileak.

27 72 07

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115m', itsasora begira eta gela guztiak kanpokaldera ematen dute..

60 41 20
Arratsaldeaz 8etatik aurrera

Persona bat behar dut DEUSTON pisu bat konpartitzeko.

74 07 40 Nerea
Goizez 9-2 bitartean

ETXE BAT SALDU NAHI NUKE Pedro Muguruza Etorbidean. Bi gela, saloia, sukaldea eta komuna ditu.


72 74 30 97

Ikasleentzako LOGELA BAT ALOKATUKO nuke astean zehar. Jatorduak eta arropa garbiketa barne.

Famili giroa.
74 40 85

SIBERIAN HASKY BAT galdu da Karakate mendi inguruan, duela 15 egun. Kolore beltza eta zuria, begi urdinak. 3 urte ditu eta emea da. Hasky izenari erantzuten dio. Diruz saritzeko prest nago.

10 18 96



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak 46 111
Txanda hartzeko 7 43354
Planning 7 42950
Alkoholiko Anonimook 7 40385
D.Y.A (anbulantzia) 46 4622
Gurutze Gorria 7 43864
Mendaroko Ospitala 7 56264
Drogomenpekotasun Z 7 41008
Odol Emaileak 7 43936

GARRAIOAK

Eusko Trenbidea..... 740442
PESA (Eibar) 1 12 131
Taxi Geltokia 7 40898

UDALA

Euskara Zerbitzua 7 44366
Kirol Zerbitzua 7 44415
Kultura Zerbitzua 7 42158
Mendaroko Udala 7 56100
Ongizate zerbitzua 7 43736
Udaletxea 7 44050
Udaltzaingoa 7 41394

BESTELAKOAK

Caritas 7 40442
Elgoibarko Izarra 7 41626
IMI 7 44196
Kontsumo Bulegoa ... 7 43088
Liburutegia 7 43525
Musika Eskola 7 42145
Mintxeta 7 44315
Parrokio 7 40942
Polikiroldegia 7 41361
Posteidea 7 44547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza... 740296
Zaharren Biltokia 7 40526

IKASTETXEAK

Herri eskola 7 08 79
I.M.H. 7 44 32
Institutua 7 402 67
Ikastola 7 44 41
L.H.L. 7 44 80
Pilar Ikastekea 7 4 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 7 44 12
El Diario Vasco 7 4 40 73
El Mundo 7 422 67
El Correo Español 7 4 10 82
Egin 11 8 21
Deia 7 44 57
Zazpiki 7 43 74

25 OSTIRALA

19,30 HITIALD1A

Gaia: Irlandako bake prozesua

Hizlaria: Karmelo Landa

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Herri Batasuna

22,15 BELDURREZKO ZIKLOA

Zinea: "Brain Dead"

Kontzertua: 6 NEMEN 9

Zinea: "La noche de los muertos vivientes"

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Kokoe

n LARUNBATA

9,00 EH1ZA TXAPELKETA

✓ San Migelen

Antolatzailea: La Union

12,30 MANIFESTAZIOA

PRESOEN ALDE

✓ San Frantzisko iturrian

Antolatzailea: Herri Batasuna

17,00 KIROL JAIALDIA

✓ Kiroldegian

Antolatzailea: Ibai Gimnasioa

Sarrera dohainik

19,30,22,15 ZINEA

"Cuatro mujeres y un destino"

✓ Herriko Antzokian

7 IGANDEA

10,00 PERRETXIKU ERAKUSKETA
ETA LEHIAKETA

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Karakate Mikologia
Elkartea

12,00 KOMIKI MARRAZKETA
ZUZENEAN

Santiago Sequeiros eta Kokoeko
partaideak.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kokoe

16,30 ZINEA

"Mi padre, ¡Que ligue!"

✓ Herriko Antzokian

19,3122,15 ZINEA

"Cuatro mujeres y un destino"

✓ Herriko Antzokian

ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Cuatro mujeres y un destino"

✓ Herriko Antzokian

ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Mi padre, ¡Que ligue!"

✓ Herriko Antzokian

(Ikuslearen eguna)

ISS ASTEAZKENA

22,15 BIDEO EMANALDIA

"El baile de los vampiros" eta

"El cazador de vampiros"

✓ Kultur Etxean

Sarrera dohainik

Antolatzailea: Kokoe

OSTEGUNA

20,00 DANTZA JAIALDIA

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Musika eta Dantza
Fundazioa

22,15 BIDEO EMANALDIA

"La mosca"

✓ Kultur Etxean

Sarrera dohainik

Antolatzailea: Kokoe

OSTIRALA

19,30 EUSKAL BIBLIAREN
AU RKEZPENA

Hizlaria: Jesus Mari Arrieta

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Bibliako Taldea

22,15 ZINEA

"La semilla del diablo"

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Kokoe

ixandak

FARMAZIAK:

24, larunbata: Yudego

25, igandea: Yudego

26, astelehena: Ormazabal

27, asteartea: Ormazabal

28, asteazkena: Ormazabal

29, osteguna: Etxeberria

30, ostirala: Etxeberria

OKINDEGIA:

25, igandea:

BOUTIQUE DEL PAN



Cuatro mujeres y un destino

Zuzendaria: Jonathan Kpplan

Aktoreak: Madeleine Stowe,

M.S. Masterson, Andie

MacDowell, Dew Barrymore.

1890, Colorado. Codyk, burdel

bateko emagaldur eder batek, bere

bezero bat "Coronel" deitutakoa,

hiltzen du beste emagaldur bat

defendatzearen. Urkatuta hiltzera

kondenatuko dute, baina bere

lankideek askatu egingo dute.

Eileen, Anita, Lilly eta Cody ihesi

ibiliko dira aurrerantzean.

Anitaren jabetzako lur batera

joango dira bizi izatera lauk,

baina han ere arazoak izango


dituzte.

1. CIDAKO

LEI-1111011

Hamaika lagunek bidalitako 60 erretratu jaso ditugu BARRENEk antolatutako

1. UDAI(O ERRETRATU LEHIAKETAN. ONGARRI Argazki Taldeko kide den Jesus Mari Sarasua izan da epamahaia osatu duena eta bere ustez honako hauek dira LAU FINALISTAK:



"Hau bai paraje ederra"
Tomas Isasti, 30 urte



"Naturaren edertasuna"
Koldo Aiercii, 25 urte



"Eguzkiaren onena itzaia"
Aitor Intxausti, 24 urte



"Hamarrentzat bi"
Jose Ajuria, 41 urte

Datorren astean bi erretratu irabazleak eta hauen jabeen izenak argitaratuko ditugu. Sariak bi irabazleentzat:

**Asteburu bat
FRANTZIAKO LANDETAN
BI LAGUNENTZATI**



GENERALI ASEGURUAK

"RONKINA" Aitor Eizagirre. Santa Ana 20. Tel. 74 41 01

HALCON
VIAJES



ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

HIZKUNTZ IKASTAROAK

1994-95 IKASTURTERAKO MATRIKULA

■ HIZKUNTZAK 111

Alemana, Frantsesa, Ingelesa

■ MAILAK ■

Oinarrizkoa, Erdi-mailakoa, aurreratua
Itzulpena (eskaeren arabera)
P.E.T. First Certificate, Proficiency
Ingeles teknikoa eta komertziala

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:
IMH ERAIKUNTZA

San Roke Auzoa, 1. 20870 ELGOIBAR.
Tel.: 74 41 32 Fax: 74 41 53

■ IRAUPENA N

1994ko urriaren 3tik
1995eko ekainaren 23ra.

■ ORDUTEGIAN

17:30 19:15 eta 19:15 - 21:00

■ KURTSO INTENTSIBOAK ■

Urriaren 3tik abenduaren 22ra
(86 ordu guztira)

■ IRAKASLEGOA ■

Natiboa

■ IKASLEGOA ■

15 urtetik gorakoa

■ MATRIKULA ■

Zabalik

